

AZKEN ADIERAZPENA
ESPETXE PASTORALTZARI BURUZKO X. BILTZAR NAZIONALA
EI Escorial (Madril), 2022ko urriaren 21-23

Espainiako Gotzainen Batzarreko Gizarte Pastoraltzarako eta Giza Sustapenerako Gotzain Batzordeko Espetxe Pastoraltzako Sailak deiturik, 240 biltzarkide bildu gara "*Beste zigor bat betetzea posible da*" goiburuari buruz eztabaidatu eta hausnartzeko. Hauxe izan da 2022ko urriaren 21etik 23ra bitartean Escorialen (Madril) egin den Espetxe Pastoraltzako X. Kongresu Nazionalaren hausnarketarako gaia.

Gai iradokitzailea, mundu mailan izandako pandemiaren ondorio izan dena. Preso askok neurri alternatiboen bidez bete dute zigorra: hirugarren gradua, kontrol telematiko, kondena etetea, Gizartearen Onurarako Lanak (TBC), tailerrak... Harrigarriena da neurri horiek inola ere ez dutela eragin, ez delitu gehiagorik, ezta espetxean preso gehiago egotea ere. Horrek konbentzitu gaitu zigorraren beste betetze bat posible dela, nahitaez kartzelatik igaro gabe.

Kongresu honek askotariko parte-hartzea izan du: kapilauak, elizbarrutiko ordezkariak, boluntarioak, abokatuak, Espetxeetako Administrazioako langileak. Espetxe-munduan esku hartzen duten agente guztietako pertsonak hartu dute parte. Hitzaldi, testigantza eta talde-lanen hausnarketek aberastutako jardunaldiak.

Irteeran den eliza bezala eta espiritu sinodalarekin, aurten Espainiako espetxe askotan bizi izan dena, Elizarengana eta gizartearengana jotzen dugu, gogoeta egin eta espetxeko hormak gainditzen dituen zigorra betetzeko neurriak antola ditzan.

Espetxe Pastoraltzaren X. Kongresu Nazional honetan gure pastoraltza osatzen duten hiru arloak landu ditugu: erlijiosoa, soziala eta juridikoa. Bertatik jarraitu nahi dugu gure Espetxe Pastoraltzaren etorkizuna marrazten.

Zerumuga itxaropentsu bat zabaltzen da gure aurrean, non gizonak eta emakumeak, epaiaz, ez baitute nahitaez presondegitik igaro behar. Badakigu, halaber, gure aurrean erronka handia dagoela, bizi garen gizarteak zigorrak gogortzeko presioa egiten jarraitzen baitu.

Gure Kongresuaren amaierara iritsita, ponentzietatik, mahai-inguruetatik eta taldeen lanetik datozen gure gogoetak partekatu nahi ditugu. Ondorengoa esan nahi dugu:

EGIAZTATZEN DUGU:

1. Gaur egun, presoaren profila askotarikoa da, baina oraindik ere preso pobrea edo desegituratutako familietatik datorrena da nagusi.
2. Gure gizarteak gehiago egiten duela justizia bindikatiboaren alde justizia errestauratiboaren alde baino.
3. Biktimarekiko konpromisoa jasandako kaltearen benetako aitortzatik eta bidezko erreparaziorako eskubidetik urrun dagoela.
4. Presondegietan buru gaixotasuna duten preso asko daudela oraindik, aitortuz presondegiak haraindiko tratamenduaren beharra dutela.
5. Gero eta atzeritar gehiago egotea, zigorra betetzen amaitzen dutenean kanporatuak izango direnaren ziurtasun ezarekin, gure herrialdean erregularizatzeko aukerarik gabe.
6. Gazteen justizia, gure sistema judizialean, egiteke dagoen zeregina dela oraindik ere.
7. Espetxeetako Idazkaritza Nagusiak delitueterako programa berariazkoak, alternatiboak eta psikohezitzaileak eginez aurrera jarraitzen duela.

APUSTUA:

1. Beste zigor bat betetzea posible da. Gure Kongresuaren gogoetak pentsarazten digu espetxea ez dela zenbait delituren irtenbidea, non tratamendu hezigarriagoarekin espetxean sartzea saihestuko litzatekeen.
2. Espetxearen ordezkotako neurriek ikuspegi hezitzaile eta errestauratiboagoa izatea zigortzailea baino. Zigortzailea baino gizatiarragoa.
3. Zigor alternatiboak ez izatea salbuespena, zigortua gizarteratzen lagunduko duen ohiko araua baizik.
4. Prebentzio-politiken bidez balioetan hezteak, pertsonari erantzukizunean eta askatasunean hazten laguntzeko.
5. Zigorrari eta espetxeari buruzko ikuspegia aldatzearen aldeko apustua egiten dugu, espetxetik eta errepresiotik askatasunaz gabetutako pertsona birgizarteratzearen eta biktima berrezartzearen aldeko begiradara pasatuz, espetxeko hormak gainditzen dituzten neurri alternatiboen bidez.

ESKATZEN DIOGU:

ELIZARI:

1. Jarrera samariarra, askatasunik gabekoei harrera eginez, entzunez eta lagunduz, pertsona eta Jainkoaren seme-alaba izatea duintasunez bizi ahal izateko.
2. Sentiberatasun errukitsua, presoari bere buruarekin, biktimarekin eta Jainkoarekin adiskidetzeko bidean lagunduko diona.
3. Gure kristau-komunitateak irekita egotea preso askeak hartzeko, komunitateko beste kide bat bezala.
4. Bere baliabideak, materialak eta espiritualak, askatasunik gabekoen alde jartzea, gizarteratze eta espiritualtze bidean.
5. Espetxeko boluntariotza sustatzea, espetxearen munduan Eliza gorpuzteko bitarteko gisa eta pertsona oro birgaitzeko espirituarekin.
6. Askatasunik gabeko pertsonen familiak zaindu eta laguntzea, nahasmen egoeratarako laguntza eta orientabide gisa.
7. Espetxeko boluntariotzaren prestakuntzaren alde egin eta zaindu dezala, esparru horretan laguntzeko eta gorpuzteko bide gisa.
8. Espetxeetako Pastoraltzaren, Elizbarrutiko Caritasen, Parrokien, Eliz erakundeen eta Gizarte Zerbitzuen arteko komunikazio eta koordinazio handiagoaren alde lan egitea, askatasunaz gabeturik dauden pertsonen beharrianetan ardaztutako elkarlanerako.
9. Parrokien, elkarten eta eliza-mugimenduen pertsonak hartzeko sensibilizazioan eta motibazioan ahalegintzea, espetxeratzearen ordezkotzako neurriekin, Gizartearen Onurarako Lanen (TBC) bidez edo espetxeratzea saihesteko beste neurri batzuen bidez.
10. Lan egin dezala gure kristau komunitateen sensibilizazioan eta apustu egin dezala haur eta gazteen prebentzio-jardueren alde.

GIZARTEARI

1. Delitua-Kartzela binomioa gainditzea, delituaren aurrean aukera bakar moduan. Birgizarteratzeko bidean presoaren onerako begirada zabala izatea. Zentzuzko zigor alternatiboaren beharraz gogoeta egitea kasu guztietan.
2. Gizarte gehiago sensibilizatzea, espetxearen ordezkotzako zigorrak bultzatzeko.

3. Mentalitate-aldaketa, presoak gizartean normalizatzeko eta aldatzeko aukera duen pertsona gisa ikusiz.
4. Birgizarteratzeko bigarren aukeren alde egitea, espetxeratzearen ordezkotik neurrien bidez.
5. Gizarte-politikek espetxeak baino segurtasun handiagoa bermatzen dutela sinestea. Prebentzio- eta garapen-politiketan inbertitzeak kartzelan sartzea eragozten du, eta justizia sozial handiagoa bultzatzen du gure gizartean.
6. Concepcion Arenalen ametsa egia bihurtzea, "delitua gorrotatzen du eta delitugilea erruki du", pertsona eta bere suspertze-prozesua erdigunean jarritz.

JUSTIZIARI:

1. Sententziak gizatiartu ditzala. Zigortuaren aurpegiari begiratu eta gizarteratzen lagunduko dioten zigorrak izatea.
2. Ausarta izatea espetxearen ordezkotik neurrien aldeko apustua egiterakoan, baldintza sozial eta mediatikorik gabe.
3. Espetxea azken helburu gisa gainditzeko duten neurri alternatiboak ezartzeko baliabideak erabiltzea. Ez dadila espetxeratzeak epairik izan ordezkotik neurriak ezartzeko baliabide faltagatik.
4. Gaixo mentalen espetxeratzea azken baliabide posiblea izatea. Gaixo mentala hobeto tratatzen eta sendatzen lagunduko duten aukerak bilatzea.
5. Espetxe-arloko egungo legeria berrikustea eta eguneratzea, gizartearen errealitatera eta egungo premietara egokituz. Lege berriak eta delituen ikuspegi berriak eskatzen dituzten garai berriak bizi ditugu.
6. Esperantzarik gabekoen eta, okerrago, errehabilitaziorik gabekoen kondena luzeen legeria berrikustea.
7. Justizia errehabilitatiboaren bideen alde egitea, bakoitzari berea, biktimari, arau-hausleari eta gizarteari erantzuteko, berrezartzeko eta itzultzeko modu gisa, Zigor eta Espetxe Sistema bidezkoago eta gizatiarrago baten mesedetan.
8. Espetxean dauden teknologia berriak errealitatea izatea, ez bakarrik ikuspegi teorikotik aitortua, askatasunaz gabetutako pertsonen beren eskubideak baliatu ahal izan ditzaten.
9. Espetxe-eremuan justizia leheneratzailearen aldeko apustua egiten jarraitzea, humanizatzeko modu gisa.

10. Lege-erreformak ez egotea presio sozial edo mediatikoek baldintzatuta, baizik eta bila dezatela gure Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikulua betetzea.

GIZARTE-KOMUNIKABIDEEI:

1. Gure gizartean egindako delituen sentsazionalismoa eta oihartzun mediatikoa baztertzea.
2. Gertatutakoaren eta informatutakoaren arteko informazio-oreka.
3. Gure gizartean *“zenbat eta espetxe-zigor handiagoa, orduan eta segurtasun handiagoa”* pentsamoldea aldatzearen alde lan egitea.
4. Askatasunaz gabetutako pertsonekin egindako lanaren emaitza positiboak ikusarazten laguntzea.

Espetxe-Pastoraltza bezala, gero eta preso gutxiago dagoen mundua amesten dugu. Espetxea gaindituko duen mundu positiboa, pertsona gizartearentzat berreskuratuko duena, non normalena pertsonarentzat positiboa den gizarte -eta familia- ingurune batean neurri alternatiboen bidez beteko diren epaiak izango diren, eta inoiz salbuespena izango ez direnak. Jakitun izanda pertsona bat gizartetik aldentzeak ez duela laguntzen hura errekuaratzen, ezta kartzelara eraman zuen gizarte-arazoa konpontzen ere. Zigorra betetzean, uste dugu ingurune positiboek laguntzen dutela gizarteratzen eta gizarteratzearen aldeko apustua egiten duen legearen espiritua betetzen eta errealitate bihurtzen.

El Escorial (Madril), 2022ko urriaren 23a